

**Esp.kodea:** 2010CPOB0001

**Gaia:** Musakolako kiroldetgia eraberritzeko  
proiektua  
**Hasiera eguna:** 2010/01/18

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko martxoaren 23an egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera akordio hau hartu zuen:

**“Musakolako Kirol Esparrua birmoldatzeko proiektuari dagozkion obrak kontratatzeko lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatzea eta proposamenak aurkezten gonbidatuko diren izengaiak aukeratzea.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kontratazio Mahaiaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Kontratazio arauak eta Klausula Administratibo Partikularren Agiriak aurreikusten dutena betetzeko, Kontratazio Mahaia bildu da 2010eko martxoaren 23an, alde batetik proposamenetan lizitatuzaileek aurkeztutako agiriak kalifikatzeko, eta bestalde, proposamenak aurkezten gonbidatuko diren izengaiak aukeratzeko.

Parte hartzeko eskaerak ikusirik, eta aurkeztutako agiriak kalifikaturik, ondorengo akordio proposamena egiten du Kontratazio Mahaiak:

1.- **Musakolako Kirol Esparrua Birmoldatzeko Proiektuari dagozkion obrak** kontratatzeko Arrasateko Udalak deitutako prozedura murriztuan parte hartzeko ondorengo eskaerak onartzea eta, proposamenak aurkeztera gonbidatzea:

Titularra	Sozietatearen izena
Eliás Hontoria Ruiz jauna N.A.N.: 30.552.801-S	REPAIR ESTRUCTURAS S.L.
Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta jauan N.A.N.: 15.960.453-V	CONSTRUCCIONES AMENABAR S.A.
Pedro J. Sancho González jauna N.A.N.: 13.128.263-R	FREYSSINET S.A.

2.- Parte hartzeko ondorengo eskaerak ez onartzea:

Titularra	Arrazoia
ANTZIBAR S.A.	✓ Ez du kreditatzen hormigoizko egiturak konpontzeko obrarik egin izana.
UTE OBRAS ESPECIALES GIPUZKOA S.A. (OBEGISA) OBRAS ESPECIALES NAVARRA S.A. (OBENASA)	✓ Ez du kreditatzen hormigoizko egiturak konpontzeko obrarik egin izana.

---

**Esp.kodea:** 2010CPOB0001

**Gaia:** Musakolako kiroldetgia eraberritzeko  
proiektua  
**Hasiera eguna:** 2010/01/18

---

3.- Proposamenak aurkezteko aukeratutako hautagaiek Baldintza ekonomiko eta administratiboen orrietako 12. klausulan zehazten diren **BI KARTAZAL** (A eta B) aurkeztu beharko dituzte Udaletxeko sarrera erregistroan-BAZen (Biztanleen Arreta Zerbitzua):

- a) Aurkezteko azken eguna: **2010eko apirilaren 13a (berau barne).**
- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Baldintza ekonomiko eta administratiboen orrietako 12. klausulan adierazitakoak.
- c) Zenbat denbora eutsi behar zaion eskaintzari: Bi hilabete.
- d) Aldaerak: ez
- e) Aurkezteko lekua: Sarrera erregistroa-BAZ (Biztanleen Arreta Zerbitzua), Maisu Arano pasealekua 8.
- f) Eskaintzak irekitzea: **2010eko apirilaren 28an goizeko 10:00etan Udaletxeko bilera gelan.”**

*Adierazten dizut, jakinarazten dizugun akordioaren edo erabakiaren aurka, behin betikoa dena administrazio bidean, AUKERABIDEKO izaeraz BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkeztu abal izango duzula, Administrazio Auzigaietako aurkeztu aurretik, HILABETEko epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo zuzenean aurkeztu ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO ERREKURTSOA Donostiako Administrazio Auzigaietako Epaitegian, BI HILEKO epean jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

*Hori guztia egin abal izango duzu, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109 c), 116, 117 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan, eta Administrazio Auzigaietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta hori, kontuan harturik bidezkoztat jotzen duzun beste edozein egintza edo errekurtsio aurkeztu abal izango duzula.*

Arrasate, 2010eko martxoaren 24a  
IDAZKARIA

Ainhua Guenaga Munduate

REPAIR ESTRUCTURAS, S.L.  
USASUAGA , 5 POL ARTUNDUAGA, P.8.1  
48970 BASAURI

ANTZIBAR SA  
LANDETA , Z/G  
20500 AZPEITIA

---

**Esp.kodea:** 2010CPOB0001

**Gaia:** Musakolako kiroldegia eraberritzeko  
proiektua

**Hasiera eguna:** 2010/01/18

---

OBEGISA, S.A.  
POKOPANDEGI , 11 - 2. OF. 203-208. EDIFICIO IGARABURU  
20018 DONOSTIA

FREYSSINET SA  
PORTUETXE , 47 - 2. OF 21 22  
20018 DONOSTIA

CONSTRUCCIONES AMENABAR, SA  
NAFARROA KALEA , 50 - .  
20800 ZARAUTZ